

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
38/2012	R9/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio bultzatzaileak atzera egitea administrazioemandatuaren onarpenaren ondorioz</i>

Ebazpena: R 9/2014

Espedientea: 38/2012

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurrean jarritako gatazkari buruzkoa, 1. ERAKUNDEA (IFK: ---1) erakundearen zerga-egoitza zuzentzeari lotuta, uste baitu egoitza Madrilen dagoela 1996ko apirilaren 25etik; gatazka Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da 38/2012 espedientezenbakiarekin, eta txostengile gisa Gabriel Casado Ollero jaunak jardun du.

## I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2012ko urriaren 17an planteatu zen, Arbitraje Batzorde honetan hurrengo egunean, hilaren 18an, sartuz, Bizkaiko Foru Aldundiak forman eta epearen barruan bidalitako idazki baten bitartez.

2. Arbitraje Batzordeak 2014ko uztailaren 21ean egindako bilkuran erabaki zuen gatazka izapidetzeko onartzea eta ZAEAk Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritza Berezira lekualdatzea, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 16. artikuluko 2. atalean aurreikusitakoaren arabera, hark bidezko ziren alegazioak formulatzeko xedez.

Espedientea	Ebazpena		Eraginpean hartutako administrazioak		Kontzeptua
38/2012	R9/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio bultzatzaileak atzera egitea administrazioemandatuaren onarpenaren ondorioz

3. 2014ko uztailaren 30ean Zerga Agentziaren EAeko Ordezkaritza bereziko buruak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Tokiko Zergen eta Zerga Errolden Zerbitzuari jakinarazi zion 1996ko apirilaren 25etik aurrera 1. ERAKUNDEAren egoitza Madrilen jartzeko proposamena onartu egin dela.

4. 2014ko azaroaren 13ko idazki baten bidez, hurrengo egunean, hilaren 14an, erregistroan sartu zena, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak Arbitraje Batzordeari jakinarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak hartutako erabakia, honako hau dioena:

*"Bizkaiko Foru Aldundiak 2012ko urriaren 17an jarritako Zerga Administrazioko Estatuko Agentziarekiko gatazkan atzera egitea maiatzaren 23ko 12/2002 legearen bitartez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 65. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako Arbitraje Batzorde honen aurrean, 1. ERAKUNDEAren zerga-egoitza zuzentzeari lotuta".*

5. Ogasuneko zuzendari nagusiaren aipatu erabakiaren oinarri gisa erabiltzen den txostenean adierazten da "[ZAEA] ados dagoela Foru Ogasun honek egindako zerga-egoitza zuzentzeko proposamenarekin (...) eta adostasun horrek gatazkaren xedea gertatzez desagerrarazten duela. Ondorioz, atzera egitea erabaki beharko litzateke ( ...) ZAEAk gertatzez bere hitz guztietan onartu duelako Bizkaiko Foru Aldundi honek egindako aipatu erakundearen zerga-egoitza zuzentzeko proposamena".

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpenak hartzeari, funtzionamendu-erregimenari eta prozedurari lotutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
38/2012	R9/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio bultzatzaileak atzera egitea administrazio demandatuaren onarpenaren ondorioz</i>

guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, Erregelamendu honen ondoriozko berezitasunak aparte utzi gabe".

2. Adierazitako 30/1992 Legearen 87. artikulua araber, eskaeraren edo asmoaren ebazpenak eta atzera egiteak emango diote amaiera prozedurari, besteak beste, eta "prozedura amaitu egingo da, era berean, gerora sortutako arrazoiak direla-eta prozedura ezin bada inola aurrera eraman". Emango den ebazpenak, betiere, arrazoitua izan behar du.

"Eskaeran atzera egitea gertatzen den kasuetarako, baita prozeduraren xedea gertatze desagertzen denerako, [hari amaiera ematen dion] ebazpena kasu bakoitzean xede den zirkunstantziaren aitortzea izango da, gertatutako gertakariak eta arau aplikagarriak adieraziz" (42.1 artikulua); eta azkenik gaineratuz 30/1992 Legearen 91. artikulua 2. atalak "administrazioak erabat onartuko duela atzera egitea edo ukoa, eta prozedura amaitutzat emango duela, salbu eta, bertan hirugarren interesdunak bertaratuz gero, horiek prozedurarekin jarraitzea eskatzen badute atzera egitea jakinarazi zaien egunetik zenbatzen hasi eta hamar eguneko epearen barruan".

3. Kasu honetan, ZAEA BFAk nahi duen 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitzaren aldaketarekin ados dagoenez, erakunde horren egoitzari lotuta bi administrazioen artean zegoen desadostasuna gertatze desagertzea dakar (Ekonomia Ituneko 43. Sei artikulua eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 3.c) artikulua) eta, harekin batera, "prozeduraren xedeari gertatze desagerpena" (30/1992 Legearen 42.1 artikulua); eta hori da gatazka sustatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak erabakitako atzera egitea eragiten duen zirkunstantzia.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
38/2012	R9/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	<i>Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio bultzatzaileak atzera egitea administrazio demandatuaren onarpenaren ondorioz</i>

## ERABAKI DU

- 1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren atzera egitea onartzea, Zerga Administrazioko Estatuko Agentzia 1. ERAKUNDEAren (IFK: ---1) zerga-egoitza zuzentzeko proposamenarekin ados dagoelako.
- 2.- Jardunen amaiera eta artxibatzea eta horretarako igorritako dokumentazio guztiaren itzultzea agintzea.
- 3.- Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.